

Aurkezpena

Onartu behar dut Joseba Ariznabarretak bere ibilbidean zehar erakutsitako maila eta eskuzabaltasun intelektualak Euskal Herriaren askatasunarekiko duen ekarpen bikaina beharrezko gardentasunaz ez adierazi ahal izateak beldurtu egiten nauela.

40 urte luze igaro dira LAN DEYA-k eskaintzen zuen euskal errealitatearen analisi eta ulertze moduaren inguruan sorturiko talde politiko batean topo egin genuenetik. Garai hartan askok LAN DEYA Euskal Herrian argitaratzen zen aldizkari politiko hoberentzat zuten.

Bere gaitasun eta abertzaletasunagatik laster nabarmendu zen Joseba beste kide batzuekin batera, aipaturiko taldean landutako ideien zabaltzaile gisa; herri, hiri, unibertsitate eta abarretan sorturiko zelula lokalen sustatzaile gisa.

Talde lan honek antolakuntza politiko baten sorrera ekarri zuen, sigla zehatz batzuen gaintetik. Herriaren gidaritza politikoa lideratzeko kredentzialak “ohiuka” aurkezten zituen erakundea, batez ere beraien burua euskal klase politikotzat zutenen jito eta entregismoa begi bistan geratzean.

Sektore atzerakoien eta burokratikoaren menpe zegoen “klase” honek, azpijoko eta mugimendu korapilatsuen jabe baina aldi berean oinarrizko maila estrategikorik gabeko “klase” honek alegia, sortutako oportunismo graduen, zatiketaren, banaketaren, utzikeriaren eta abarren bitartez (bakoitzak bere akatsak ahaztu gabe) aurrez aipaturiko proiektu gaztearen deuseztapena ekarri zuen, mugimendu nazionala larriki ahulduz. Horrela uler liteke azken 30 urteotan askatasunaren inguruan eman diren aukerak gauzatzeko euskal politikak izan duen ezintasuna. (“Askatasunaren haizeak nola hedatzen diren ikusteak eta gu ukitu ere ez gaituela egiten jakiteak sortzen digun mina baino ez da gelditzen”. 288. orrialdea, “Pueblo y Poder”)

Idazleak gure arazo nagusiak konpontzeko politika saihesterik ez dagoela baieztatzen duenean, ez dira hitz hutsak. Bere eguneroko jardueran erabiltzen duen konbentzimendua du hau. Ez du egun bakar batean huts egin bere askatasun pertsonalaren bila -bere herriarenarengandik bana ezina-. Militantzia eredugarri baten bitartez, eta zalantzarik gabe materialki sarituago izango ziren egoera eta aukera “erosoagoi” uko egingez. Horren fede eman dezakegu jarrera horren lekuko zuzenak izan garenok.

Protagonismo asmorik gabea, isilean, hainbatetan nahita baztertua izan den honek, etsipenean erori gabe lanean darrai, bestelako ordain saririk espero gabe. Badaki politika, gure herriaren askatasuna, bizitza luzeko konpromisoa dela eta inondik inora ez lehen soldatarekin ahazten den unibertsitate garaiko gazte moda iragankor bat.

Gaurkoan, lehen aipaturiko esfortzu horren emaitza den liburu berri batekin datorkigu jendeaurrera. Horrela, abertzale baten betebeharrak moraltzat jotzen duena burutzen du, intelektual konprometitu baten eginkizuna, alegia (irakurri 290.orrialdea, 1. parrafoaren 2. zatia).

Dokumentu honen aurreko atalean egindako sinopsiarekin eta liburuaren balorazioekin irakurlea bat etorriko balitz, lerro hauek idatzi dituenaren nahia bete egingo da.

Omenaldi pertsonal bezala, liburu hobeen pizgarri izan dadila eta arrakastarik handiena opa diot liburuari.


Kepa Anabitarte.

Liburuaren erosketeta:
Euskalerriko liburutegietan.
www.elkar.com
www.ariznabarreta.org

Joseba Ariznabarreta. Pueblo y Poder. Cuadernos para la reconstrucción de la razón.



Joseba Ariznabarreta.



“Egoki helduz gero, herra mintza
oro arma bat da”

Ani DiFranco
(Imperio liburuaren epigrafea, M.Hardt
A. Negri.-rena. Paidos argitaletxea)

Sinopsia



Pueblo y Poder. Cuadernos para la reconstrucción de la razón.

Lehenengo orritik azkeneraino, liburu hau errealismo politikoa deituriko tradizioan kokatzen da, ondorengo hiru zutabeetan sostengaturik: *Izaten jarraitzea da gure helburu nagusia; inork ez gaitu lagunduko; gure estatua berreraiki eta finkatu behar dugu.*

Liburu honen mezua alboratuz zein saihestuz, hemen eta orain askatasunerako pauso tinkoak eman daitezkeela pentsatzea zorigaitzoko akats handia iruditzen zaigu, oraindik tamalez indarrean dagoena. Begiak zabalik, gauzak aurrez aurre begiratu eta bere izenez deitu beharrean, nahiago dugu ostrukarena egin. Horrela doakigu.

Liburu honek agerian uzten du gutxienezko baldintza batzuk bete behar direla –derrigorrezkoa den maila taktikoko hausnarketak kontutan izateaz gain– gure xedea erabakiko den lekuan. Derrigorrezko baldintza horiek bete ezean, porrota ziarra da.

Gure ustez politika, liburu honetan definitzen den ez bezala ulertu behar dela esaten digutenak gaixo, aurpegi biko edo defendatzen dutela dioten herriaren saltzaile dira.

Balorazioak

Arrazoi ugari dira euskaldun eta katalanei Joseba Ariznabarretak idatzitako “Pueblo y Poder” liburuaren irakurketa gomendatzeko, baina bitan laburtuko ditut: askatasun nazionala gure esku eta gure esku bakarrik dagoen zerbait dela onartzera bultzatzen gaituen heldutasun ariketa da, eta independentzia hori uste baino gertuago dugunaren konplexurik gabeko aurkezpena. Horretarako ezinbestekoa da, zalantzarik gabe, autoestima indartsua eta norberaren aukeretan konfiantza osoa izatea.

Víctor Alexandre.

Kazetaria. Kazetaritzako Recull saria 1996an.
Idazlea. Fikziozko lan ezberdinen egilea.

Gure herria noraezean eta ustelkeriaren ondorioz ezgauza den klase politiko baten eraginez desagertutako bideratuta dabilen honetan, gure arbasoek Orreagan eskuratutako askatasuna odolean daramatenek behar adina denbora hartu beharko lukete Joseba Ariznabarretaren “Pueblo y Poder” liburuaren mamia laburtzen duen “Cuadernos para la reconstrucción de la razón” azpitulua irakurri eta sakontzeko.

Liburu honek gure herriaz eta haren botereaz hitz egiten du, gure indarra hain beharrezko dugun helbururantz bideratzeaz, oraindik bizirik dagoen gure estatu zapalduaren berreskurapenaz, berriz zuzitzeko zain dugun estatuaz.

Kepa Artetxe.

Galdakanoko Andra Mari Dantza Taldearen bazkide sortzailea eta euskal dantza tradizionalaren berreskuratzailea.

Herria eta Boterea; bi gai interesgarri, are erakargarriago elkarri josiak doazenean. Gai interesgarri zein konprometituak, bereziki azterketa akademiko soila helburu bakar ez denean, baizik eta gaien ikuspegi pertsonal eta praktikoa eskaini nahi denean. Gatazkaren barnetik landutako ikuspegi pertsonal eta praktikoa alegia, non Herria eta Boterea, bi kontzeptuok eta beraien gertuko erlazioak, domeinu eta kontrol errealitate asimetrikoko adierazten duten. Hau da Joseba Ariznabarretak (www.ariznabarreta.org) bere azken “Pueblo y Poder” (Zarautz 2007) liburuan hartu duen erronka.

Obrari interesgarri eta erakargarri deritzot oso. Autoreak ekarpen handia egiten du azpituluan aipatzen duen “Arrazoi Berreraikitze Koadernoak” esaldiarekin (“Arrazoi Politikoa”, gehituko nuke nik), aspaldian izugarrizko gabezia dugun honetan. Eztabaida serio baten abiapuntu izan liteke (ikusnabarra.blogspot.com), “arrazoi politikoa” inondik inora nabarmentzen ez den egungo egoera triste honetan.

Euskal Herriaren eboluzio politikokoan eta egungo errealitate gatazkatsuan interesaturik daudenen artean irakurgai derrigorrezkotzat daukat, eta batez ere gure oraina eta geroa euskaldunok izan dugun Estatu bakarra, Nafar Estatu alegia, (ber)eraikitzeari loturik dagoela sinisten dutenentzat.

Koldo Martínez Garate.

Telekomunikazio Goi Ingeniaria. Iturralde eta Nabarralderen sortzaile eta bazkidea.